



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2009/04/28	Ordua: 18:30ean	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------	-------------------------------

ESKOLAKO AGENDA 21eko Legazpiko ikastetxeetako ikasleen ordezkariak Forora etorri dira **EKITATE GABEZIA** gaiari buruz egindako hausnarketa, proposamenak eta konpromisoak herritarrei aurkezteko asmoz.

45 pertsona elkartu gara. Horien artean ikasleak, gurasoak, irakasleak, herritarrak... egon dira.

Ondoren, ikasleek alkatea eta Agenda 21eko zinegotziari emandako agiria jasotzen dugu:

2008-2009 ikasturtean, Legazpik jarraipena eman dio Eskolako Agenda 21 proiektuari, seigarren ikasturtea izanik. Udalak eta eskolek sinatutako konpromisoa berrituz, eta jasangarritasunaren alde lan egiteko asmoz, ikasturte honetan **“Ekitate gabezia”** gaia landu dugu. Gaia nahiko zabala izanik, aurten landutako atalekin gure herriko ezezagunak zaizkigun beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera izan dugu eta baita gure herritik kanpo bizi direnen beste batzuenak ere.



Legazpin **976 ume eta gazte** murgildu gara proiektuan eta hauek dira herri mailan landu ditugun arloak:

Lehen Hezkuntzako 1. ziklokoak: **Gu bezala bizi ez diren umeen** eguneroko bizitza ezagutu dugu emanaldi desberdinetan eta horrekin batera umeek ditugun giza eskubideak azaldu dizkigute. Ariketa ezberdinak egin ditugu ondo pasatzeko dirurik gastatu behar ez dela konturatzeko eta Sahararako arropa eta janariak biltzeko kanpainan parte hartu dugu ere.

Lehen Hezkuntzako 2. ziklokoak: **MIGRAZIOA** atala landu dugu, ALBOAN elkartekoek hitzaldi bat eman ziguten pobreziaren arazoa azalduz, “arazoa/konponbidea” izeneko ariketa egin genuen; horretarako neska brasildar eta neska donostiar baten inguruko istorio asmatu bat kontatu ziguten eta azkenik *Are Haizea* elkarteko kide batek Saharako egoerari buruzko azalpena eman zigun.



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2009/04/28	Ordua: 18:30ean	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------	-------------------------------

Lehen Hezkuntzako 3. ziklokoak- **BIDEZKO MERKATARITZA** gaia jorratu dugu, ariketak eginez eta herritarrei inkestak luzatuz gai honen inguruan.

DBH-ko 1. ziklokoak: EKITATEA, **OINARRIZKO ERRENTA ETA LAGUNTZAK!** atalak jorratu ditugu, horretarako etxeetan ditugun hileko gastuak aztertu ditugu, gelatik atera gara entrebistak egitera (udaletxeko gizarte zerbitzura, higiezin agentzietara, banketxetara, ...), eskolan hitzaldi bat izan genuen eta informazioa bilatu dugu.

DBH-ko 2. ziklokoak- **AZTARNA EKOLOGIKOA ETA INGURUMEN BIOGRAFIAK** atala landu dugu, horretarako, hemendik urrutiko dauden herrialdeetan gertatutako ingurumen aldaketek zein eragin izan duen pertsonengan aztertu dugu, beraien testimonioak irakurri, eta gure herriko pertsona bat elkarrizketatu dugu bertako arazo batek zein aldaketak sortu dizkion jakiteko. Aztarna ekologikoa kalkulatu dugu gelan.

Batxillerrekoek- **ETXE BIZITZA DUINA DENONTZAT** eskubide bat izanik, horiek bilatzeko posibilitate desberdinak aztertu ditugu. Horretarako bikote gazte baten, alargun baten, kanpotar baten... egoeran jarrita, etxeak bilatzen eta horiek alokatzeko edo erosteko kredituak eskatzen aritu gara.

Orain, egindako lan hauen emaitzak Udal Batzar honetan aurkeztu nahi dizkizuegu.

ONDORIO NAGUSIAK:

Beste batzuen bizi moduak eta **Ipar eta hegoaldearen arteko desberdintasunak** ikusirik, asko eta askok oso gutxi dutela ohartu gara. Janari falta, eskolarik ez, mediku eta botikarik gabe bizi direnak eta gu baino askoz okerrago bizi diren pertsonak badaudela ikusi dugu.



Migrazioaren inguruan bere garaian emigranteak zirenak elkar hizketatuz jakin dugu jendeak bere herria utzi zuela lan bila joateko eta orokorrean hartu zituzten herrietan harrera ona izan zutela. Kanpora joateak alde onak eta txarrak ditu.



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2009/04/28	Ordua: 18:30ean	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------	-------------------------------

Bidezko merkataritzari dagokionez, ohartu gara lan gehiena egiten dutenak diru gutxien jasotzen dutenak direla, bitartekariak dira diru gehien jasotzen dutenak eta herrian denda gutxi dago bidezko merkataritzako produktuak dituzten dendak.

Oinarrizko errenta eta etxe bitzita duina lortzeko eskubideak aztertu ditugunean, honako hau ondorioztatu dugu: Denok etxebizitza merezi dugula (nahiz pobreak izan) baina etxe bat alokatzea edo erostea oso garesti dela, eta gainera etxea lortzeko unean arrazakeria nabarmena dela. Etxe okupazioa, daukagun sistemaren ondorio bezala ikusten dugu, hori egiten dutenek ez dute beste irtenbiderik bilatzen. Badakigu etxea lortu nahi badugu, dirua aurrezteaz gain, Gobernuko ekimenak aprobetxatu behar ditugula, kredituak eskatu, lan egin, ... baina krisi ekonomiko honekin pobrezia areagotu egiten ari da eta ekitate gabezia handitzen doa. **Ekitateaz** aritu garenean, hemen Giza garapeneko rankinean, Europako 3.ak gabela ohartu gara, baina behera jotzeko joerarekin. Ekitate gabezia generoen artean ere ematen dela ikusi dugu, batik bat lan arloan.

Beste arazo bat ikusi dugu herri pobreei laguntza bidaltzen diegunean, ez diegula galdetzen zer behar duten eta askotan ez diegu ematen behar dutena.

Ingurumen biografiak lana ezagutu dugu eta Ingurumen degradazioak bizi kalitatean eragin handia duela ikusi dugu, batez ere herrialde pobreetan, eta leku hauetan ere ahulenak adineko pertsonak dira, gazteak beste leku batzuetara joan daitezkeelako bizitzera. Garapena mundu guztira zabaldu behar da baina era kontrolatu batean eta ingurumena zainduz. **Aztarna ekologikoa** zer den ikasi dugu eta ohartu gara gure bizi maila mantentzeko beste batzuen baxuagoa izan behar duela derrigorrez. Munduko pertsona guztiek gu bezain beste kontsumituko balute planeta bat ez litzateke nahikoa izango denontzat, 2,8 (ia 3 planeta) beharko genituzke, eta bakarra daukagunez kontsumoa, hondakinen sorrera, ... gutxitu behar dugu.

(Euskal herriko batz bestekoa 2,5 da eta EEBBkoa 3-5 bitartekoa)

Ondorioak aztertuz, zuen aurrean herria hobetzeko asmoz hurrengo konpromisoak hartu nahi ditugu guretzako garrantzitsuenak direnetatik hasiz:





AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2009/04/28	Ordua: 18:30ean	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------	-------------------------------

KONPROMISOAK:

- ▣ Pertsona guztiak berdin tratatuko ditugu, lagunduz, errespetatuz, gure jolasak erakutsiz.
- ▣ Behar dutenei janaria emango diegu (beraien herrietara bidaliz)
- ▣ Garraio publikoa gehiago erabiliko dugu.
- ▣ Gutxiago kontsumituko dugu: Diru gutxiago gastatu, eskolako materialak zainduz, eta berrerabiltzekoak erosiz, tresnak itzali behar ez direnean eta berogailuaren erabilera kontrolatu. Markei garrantzia gutxiago emango diegu.
- ▣ Bidezko merkataritza areagotzen lagunduko dugu: etiketetan erreparatuko dugu erosteko garaian eta bidezko merkataritza ahoz aho zabalduko dugu.
- ▣ Janari eta arropak herriko dendetan erosiko ditugu, eta ez kanpoko almazenetan.
- ▣ Pobreziaren inguruan antolatzen diren ekintzetan parte hartu.

Eta Udalari ere, proposamen batzuk ekartzen dizkiogu:

PROPOSAMENAK UDALARI :

- ▶ Beharra dutenei lagundu: diru laguntzak eta lana emanez, elkarteak sortzen lagunduz, pobreziaren inguruko kanpainetan parte hartuz, lo egiteko lekuak prestatzen lagunduz, ospitaleak eta eskolak eraikitzen lagunduz, oporretan Legazpira ume pobreak ekarriz etab.
- ▶ Hutsik dauden etxebizitzetara irtenbide bat ematen lagundu, bigarren eskuko etxeen salmenta bultzatuz lagundu eta saiatu etxe eta azpiegitura berriak egiteko terreno berrien okupazioa ez egitea.
- ▶ GKE-ek (Gobernuz Kanpoko Erakundeei) laguntzeko eta jendearen inplikazioa bultzatzeko kanpainak egin.
- ▶ Langabezian daudenei ikastaroak eman.
- ▶ Garraio publikoa maizago eta merkeago jartzeko ahaleginak egin.
- ▶ Bertako baserritarren produktuen salmentari eta bertako denda txikiei lagundu.
- ▶ Bigarren eskuko merkataritza bultzatzeko kanpainak egin, dendetan bidezko merkataritzako produktuak saltzeko laguntzak jarri.



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2009/04/28	Ordua: 18:30ean	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	--------------------	-------------------------------

Badakigu gure ekarpenetako asko zailak direla aldatzen eta horietako batzuk ez daudela zuen esku bakarrik, baina denon artean ekitate gabeziaren aurka lan eginez gero zerbait lortuko dugulakoan gaude, beraz beti bezala zuen erantzun idatziaren zain izango gara.

Eskerrik asko herriko ume eta gazte guztion partetik.

Hainbat komentario egin ondoren, alkateak eta Agenda 21eko zinegotziak egindako proposamenak eskertu egin dizkiete ikasleei eta aztertuko dutela eta laster erantzuna emango dietela adierazi dute.